

B

BARREN



Musikak kaleak hartu zituen

SILVIO VAZ

“Garrantzia ematen diot proiektu bakoitza aztertzeari, eta horrek bereizten nau”



Silvio Vaz sortzailea eta diseinatzaile grafikoa da. Oso gaztea zela sortu zitzaion ekintzaile bokazioa, beste askori gertatu zaien moduan.

Zergatik erabaki zenuen zeure enpresa martxan jartzea?

Sortzea, diseinu grafikoa eta ikuste-ekoizpena dira nire lana. Honako zerbitzuak eskaintzen ditut: diseinua, ikuste-identitate korporatiboaren sorkuntza eta ekoizpena, standak, azoka eta erakusketak, zuzendaritza artistikoa eta diseinu editoriala, oro har, eta multimedia eta ikusentzunezko diseinua, besteak beste. Kaligrafia eta ilustrazio teknikak ere garatzen ditudala nabarmendu behar da. Proiektu bakoitza aztertzeari garrantzia emateak bereizten nau gehienbat, harik eta erabiltzaileari soluzio eraginkorrak eman arte.

gandik ikasi ondoren, gai ikusten dut nire burua gerta daitezkeen komunikazio arazo korapilotsuenei aurre egiteko. Orain urte bi neure estudioa jarri nuen martxan, profesionaltasuna eskaintzeko eta lanean eraginkorra izateko. Gaur egun, www.silviovaz.com webgunean ikusi daiteke nire lana.

Zer ekarri dizu Debegesak?

Enpresa eratzeako plangintza beharrezkoa zen, orientabideaz eta laguntzaz gain. Horretarako, Debegesa izan nuen ondoan, sustapena eta garapen ekonomikoa lantzen dituen agentzia. Izan ere, hasierako ideia ekintzailearen helburuak lortzeko, Debegesak emandako laguntza handia eta orientabidea beharrezkoak dira, bai araudi, lege edo ofizializazio kontuetarako, bai antolaketa edo analisi kontuetarako ere.

Zure ustez ekintzaile batek zer balore izan behar ditu?

Ez dago misteriorik ez formula magikorik ideia ekintzaile bat garatzeko prozesuan. Borondatea izan beharra dago, argi eta garbi. Horrez gain, komeni da zuhurtasun puntu bat izatea, gauzatu nahi duzun ideia enfokatzeko, helburuak ondo definitzea, planifikatzea eta gogorlan egitea. “Arian-arian noizbait bukatu”, esaera lagun batek aipatzen du. Baina azpimarratuko nituzkeen baloreak hauek dira: lanean zintotasuna, seriotasuna, lanari eustea, pazientzia eta, batez ere, norbere buruakin lehiakortasun izpiritua izatea, etengabe hobetzea.

Emango zenuke mezuren bat jendearen izpiritu-ekintzaileak sustatzeko?

Jendea ekintzailea izan beharko litzateke, bizitzan behingoagatik, behintzat. Norbere proiektua ezagutu beharko luke, norbere eskuekin gauzatutakoa.



Zer pauso jarraitu zenituen? Zer-nolako laguntzak izan zenituen?

Euskal Herrian hainbat urtez lanean eta bizi izaten jardun ondoren, euskal kultura ezagutu eta beraren-



Goian, Eibarko merkataritzan euskara sustatzeko kanpainaren logo irabazlea. Behean Silviok jatetxe bati egindako web orria.

Lanik gabe gelditu zara eta zure lehenengo enpresa jartzera animatu nahi al duzu?
 Debegesak entzungo zaitu
 Negozio baten ideia daukazu eta ez dakizu ze pauso eman behar dituzun?
 Debegesak gidatuko zaitu
 Zure enpresa jarri nahi duzu eta lanean hasteko laguntza behar duzu?
 Debegesak lagunduko dizu



Musikak ez du jaberik



Gure herri eta hirietako kultur agendak eskuan hartuta, gustu eta estilo ezberdinetako musika eskaintzak aurki ditzakegu: hiru-lau lagunez osaturiko talde hasi berri baten kontzertua, opera erraldoi baten bost emanaldi, bertso saio musikatu bat, indiako ijito talde baten kontzertua, rock talde famatu baten makrokonzertu bat, hari laukote baten emanaldia...

Konstzienteki edo inkonstzienteki, eskaintza zabal horretatik, norberak aukeraketa egin ohi du. Baina badira aukeraketa horretan

normalki alde batera uzten ditugun eskaintzak, bakoitzak bereak. Baliteke, aurreiritzi, topiko eta ohiturek, aukeraketa horretan beren eragina izatea.

Kasu nabarmen bat gazteen artean musika klasikoak duen arrakasta eza dugu. Ez da ohikoa musika estilo honetako emanaldietan jende gaztea aurkitzea. Hala ere, ugariak dira mundu osoan, gazteez osaturiko orkestra sinfonikoak. Hor dugu Venezuelako kasua: ia 200 gazte orkestra dituzte martxan, eta punta puntan, mundu osoko publiko eta kritikoen laudorioei esker, ospe izugarria lortu duen Simon Bolivar gazte orkestra. Hau ikusirik, ezin esan aipatutako musika estiloa aspergarria denik. Ez ote dira guk sortutako topiko, aurreiritzi eta ohiturak, honelako eskaintzetatik urruntzen gaituztenak?

Musika klasikoa aipatu dudan arren, badira beste ekintza ugari albo batetara uzten ditugunak. Zergatik ez? Zergatik ez naiz joango sekula ikusi edoeta entzun ez dudan kontzertu, antzerki, bideo emanaldi... horretara? Egia esan, ez dut galtzeko ezer, eta agian irabazteko asko. Joaten ez naizen emanaldi batetara hurbiltzeko pausua eman, eta pozik itzuli izan naiz askotan, musikak bereganatu nauen sentsazioaz. Aldiz, musikak berak hor darrai jaberik gabe, etenik gabe, beste norbaiten denbora noiz ostuko zai. Agian zurea, zergatik ez?

Elur Arrieta

.....

“Zergatik ez naiz joango sekula ikusi edota entzun ez dudan kontzertu horretara?”

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

BIDALI ZURE GALDERA

ALKATEARI!

Legealdiko bi urteek eman dutena eta aurrera begirako asmoak azalduko ditu **Alfredo Etxeberriak**.

Galderak bidaltzeko azken eguna, ekainak 8

elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com

www.elgoiBARREN.net



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

ANTTON ALBERDI

BIOLOGIA IKASLEA

“Klima aldaketari itxaron gabe,
gauza asko dago egiteko”



Antton Alberdi 22 urteko elgoibartarra da, eta Biologia ikasketak ari da egiten Leioan. Animaliak eta natura ditu gustuko, eta horiei argazkiak ateratzea du pasio. Informazioa tresna baliagarria da gizartean, eta www.euskalnatura.net web gunearekin Euskal Herriko natura eta zientziaren inguruko informazioa ematen dute Alberdik eta bere lagunek. Ezjakintasunak ardura eza ekartzen du askotan, eta horri buelta emateko informatu beharra dagoela uste du Alberdik. Atarian parte hartzen dutenen argazkiak batzen ditu *Objektibotik: euskal natura argazkitan* erakusketak, eta ekainaren 3ra arte ikusteko aukera egongo da Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Zergatik aukeratu zenuen biologia ikastea?

Natura eta zientzia gustatzen zaizkidalako: mendian asko ibiltzen naiz, eta animaliak eta landareak txikitatik gustatzen zaizkit. Zientzia, oro har, ere gustatzen zait. Ez nuen nahi nire bizitza lau pareten artean pasatzea, eta horregatik aukeratu nuen.

Biologia ikasita, zer irtenbide daukazu lan munduan?

Irtenbide gehien daukan karreretako bat izango da biologia. Denetik eman dezakezu: ikerketan lan egin dezakezu, irakaskuntzan, dibulgazioan parke naturaletan eta antzekoetan, lurraldearen planifikazioan... lan pila bat dago, eta orain bioteknologiarekin ate berriak ari dira irekitzen. Hala ere, nirea gehiago da naturaren eta espezieen kontserbazioa. Saguzarrekin ari naiz laguntzen, EHUan ikertzen duen talde batekin, bigarren urtea da, eta bertan jarraitzeko asmoa daukat: saguzar artean.

“Bakoitzak zatarraren kontzeptu bat dauka: niretzako saguzarrak gizaki asko baino politagoak dira”

Biologoa izanda, animalia batzuei xarma aurkituko diezu, baina saguzarra askorentzat ez da batere animalia sinpatikoa.

Ingurukoek esaten didate ea nola egon naitekeen saguzarrekin lanean, baina *bitxo* oso kuriosoak dira. Ikusten badituzu, ez dira zatarrak: bakoitzak zatarraren kontzeptu bat dauka, eta niretzako saguzarrak gizaki asko baino politagoak dira. Ezjakintasun handia dago, batez ere saguzarrekin: askotan hitz egiten dugu eta saguzarra erabiltzen dugu (singularra), eta asko jota bi espezie ezberdintzen ditugu. Baina Euskal Herrian 25 espezie daukagu. Batzuk basoetakoak dira, beste batzuk mendietan bizi dira, beste batzuk erreka bazterretan ibiltzen dira, gordelekuak batzuk zuhaitzetan daukate eta kobazuloetan beste batzuk.

Eta egia da, mitoak dioen bezala, buruan pegatu eta odola xurgatzen dutela?

Espezie oso gutxi daude odolaz elikatzen di-

renak, eta horiek gizakiari ez diote xurgatzen. Pertsona baten burura joateko oso despistatuta dabilen bat izango da, sitsen atzetik ibilita, norbaiten burua jo duena. Hemengo saguzarrak txikiak dira, oro har, eta sitsak jaten dituzte, gaueko tximeletak. Handi bat ere badago, hego zabaleran 50-60 zentimetro neurtzen dituena, eta hura txoriez elikatzen da, baina Pirinioetan bizi da. Hemen arrakatsurik ez dago, gertatu daitekeen bakarra da, harrapatuz gero, saguzarrak haserretuta koska egitea, eta birus dezenteren transmisioareak dira. Horregatik, lan egiteko orduan guanteak jantzi behar dira: pertsona bat baino gehiago hil da saguzarrak manipulatzeko, koska egin eta amorrua harrapatuta.

Argazkiak ere ateratzen dituzu. Noiztik gus-tatzen zaizu hori egitea?

Betidanik ibili izan naiz, baina orain dela lau edo bost urte inguru erosi nuen kamera, eta artxibo dezentea daukat orain: denetik ateratzen dut, animaliak, paisaiak, landareak... makroarekin ibiltzen naiz normalean. Naturako argazkiak ateratzen ditut. Hala ere, bi-daian joan izan naizenez, Maroko alderata, saiatzeko naiz argazkiak ateratzen, baina afizioa animaliei ateratzea da.

Animalia bat aukeratu behar izanez gero, zein hartuko zenuke?

Saguzarra bera, Euskal Herrian oso jota dagoelako. Batzuk baso zaharretan bizi dira, harizti zaharretako zuloetan-eta, eta oso gutxi geratzen dira. Leku oso lokalizatuetan bizi dira horiek. Beste batzuk kobazuloetan bizi dira, eta aztarnak aurkitu direnetan baranda jartzen dute. Pauta batzuk jarrita daude saguzarrei kalterik ez egiteko barandak zelan jarri zehazten dutenak. Baina askotan ez dira errespetatzen, eta saguzarrei gordelekuak kentzen ari dira. Euskal Herrian galtzeko zorian dauden hamabost bat espezie egongo dira, eta horietatik hiru laurden saguzarrak dira. Jendeak oso gutxi ezagutzen ditu, eta lan pila bat dago egiteko euren inguruan. Ezjakintasun handia dago.

Objektibotik: euskal natura argazkitan erakusketan zer ikusiko du bertara joaten denak?

Euskal Herriko biodibertsitatea erakusten saiatu gara: animaliak, landareak eta paisaiak. Bizidunik gabe ere, paisaia biologiko oso pilotak daukagu. Aberastasun handiak ditugula erakutsi nahi dugu, galtzeko zorian dauden aberastasunak. Eta ez klima

aldaketa datorrelako, baizik eta eguneroko bizitzan ez ditugulako egiten, egin beharreko gauza batzuk. Etxebizitzak eraikitzen ari dira mendiari terrenoa jaten, basoak mozteko egiten diren sarraskiak eta horrelako gauzak. Klima aldaketari itxaron gabe gauza asko dago egiteko, eta gu ari gara guztia suntsitzen.

“Aberastasun handiak dauzkagula erakutsi nahi dugu, galtzeko zorian dauden aberastasunak”

Zer da www.euskalnatura.net, ?

Euskal Herriko natura eta zientziaren atari batailatu dugu. Karrerako bigarren urtea egiten ari ginela hasi ginen: egiten genituen lanak alferrik galdu beharrean Interneten jartzeko aukera zen, eta argazkiak ateratzen ere asko ibiltzen gara. Euskaraz apenaz dago informazioa natura eta zientziaren inguruan, eta hutsune hori bete nahi genuen. Jende asko ibiltzen da gainera, eta erreferentzia moduan ere jartzen gaituzte. Egunean 400 bat lagun sartzen dira webgunean, eta, ikusita zer gai lantzen dugun, gustura gaude. **Argazkiak begiratzeko hasita, Mutriku eta Zumaiako arteko flyscha da protagonistetako bat. Orain dela gutxi inauguratu zuten ibilbidea, eta jende mordoak ibiltzen da orain. Baina ordua arte, ia inork ez zuen ezagutzen, eta urte mordoak daramatza bertan, mugitu gabe.** Argi dago komunikabideek ematen diotela inportantzia gaiari. Ikusi zenbat aldiz agertzen den hartza egunkarietan, eta zenbat aldiz kalendardoa. Kalendardoari ez zaio kasurik egiten, eta munduan oso leku gutxitan dago pagadi zaharretan dagoelako, eta Euskal Herrian daude pagadi zahar asko. Baina jendeak ez dauka informaziorik. Hartzarekin, ostera, nahikoa izaten da “ze potxolo” esatea, identifikatuta sentitu, eta zaintzen hasteko. Kalendardoarekin ez zaizu hori gertatuko, beste zerbait behar da; hasteko, informazioa, eta horretan saiatzeko gara web gunearekin.

Amalurra



Soarteren idiak 50 urtean geldi egon den 'Harri beltza' mugitzen saiatuko dira

Soarteren idiek harri zaila probalekuan mugitzeko ahalegina egingo dute Trinitate bezperan: 2.100 kiloko *Harri beltza*. Erakustaldi hori izango da aurtengo Trinitate Azokako nobedade garantzitsuena.

Harri beltza ez diote pisuagatik esaten, forma bihurriagatik baino. Noizbait errekatik ateratako eta landu gabeko harritzar horrek makina bat estuasun sortu izan ditu probalekuetan. Aldapa baserriko Ramon Larrañagaren arabera, orain dela 50 bat urte erabiliko zuten *Harri Beltza* azkenengoz. "Proban ibiltzen den jendeak harri horri lotzeko erreparo handia dauka", azaldu du.

Gogoan dauzka Azkue-San Roke auzoko Goena baserrikoen aittaren idiekin izandako komeriak. Idi gogorak izan arren, harriari tira eginez ibili ziren behin, Uztarriko probalekuan, Santa Klara inguruan. Harria mugitu bai, baina ez behar zuten tokira. Idiak ernegatu egin ziren, eta gero solte harrapatu ezinda ibili ziren kalean.

Lekunberri baserriko Jose Ignacio Aierdik gogoratzen du harria erabili zuten azken aldia: Azkoitiko Ilarrak bost giltza bost minutuan egin zituen, eta 5.000 pezeta eskeratu zituen, orain dela 50 urte.



Proban dabilzanek teknika menderatu behar dutela uste Jose Ignacio Aierdik eta Ramon Larrañagak. Izan ere, idiei tira egitean min handia egiten die lepoan. Gertatu izan da mugitzen hasi eta aurrera egin gaiteke harriak atzera egitea.

Baina Soarteren idiek ekainaren 6an mugituko dutelakoan daude, Nafarroa Plazako galtzada ezberdina delako.

Artetxan egon ohi da *Harri beltza*, ibai aldean, probaleku zaharraren inguruan. Proba amaitzean hara eramango dute bueltan.

Sasoiari sasoikoa

Espinakak

Txinatarrak izan ziren espinakak lantzen lehenak. Orain mila urte ekarri zituzten Iberiako penintsulara. Popeyek propaganda handia egin arren, ez dute horrenbeste burdin. Minbizia prebenitzen dute, batez ere biriketakoak. Hori dela eta, erretzaileen dietan komeni da hosto hau egotea. Baina espinaka larregi jatea ere ez da komeni, azido oxalikoagatik. Erreuma eta giltzurrun gaixotasunak dituztenentzako ez da mesedegarria.

Espinakaz gain, sasoi honetako bertako produktu hauek ere badira azokan salgai: tomatea, piperra, udaberriko ziza, onddoak, bildotsa, intxaurra, hurra, errezil sagarra, baba beltza, babarrunak, kalabaza, tipula, patata, ilarra, zainzuria, berakatz, kukulua, letxuga, lollo arrosa, udaberriko aza, apioa, berakatz freskoak, azelga, tipulina, porrua, erremolatxa, azenarioa eta borraja.





Jose Manuel Esparza

Nekazaria

Baratza balkoietan jartzeko ikastaroa ematen dihardu Tafallako Jose Manuel Esparza nekazariak Elgoibarrren, Debemenek antolatuta. Ezagurri batzuk kontuan hartuz gero, etxean hainbat produktu lortu daitezkeela irakasten dabil Esparza.

“Aspaldiko kontu zaharra da balkoietan eta terrazetan landatzea”

Lehenago ere eman duzu antzeko ikastarorik.

Hamabost bat urtean ibili naiz EHNE sindikatuarentzat nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroak ematen. Azken lau urteotan, balkoietan, terrazetan, edo espazio txikietan ortua jartzeko ikastaroak eman ditut.

Teorikoa ala praktikoa da ikastaroa?

Bietakoa. Praktikarekin hasi ginen, kaxoneretan ereiten. Jendeak landareak eraman ditu etxera: albarakak, tomateak, pepinoak eta abar. Ikastaroan ereindako landareak eraman dituzte, eta aurrera joango direlakoan nago.

Zer harrera izan du ikastaroak?

Jendea pozik dago. Era guztietakoak dira, gainera: amamak, gazteak... Praktikarekin hasi ginen, eskuekin hastea gustuko dudalako. Gero nekazaritzaren historia egin dugu, eta nekazarien ohitura onak aztertu ditugu. Basamortuak eta lore-baratzeak zerk sortu dituen eta zergatik aztertu dugu gero. Lurraren azterketa ere egin dugu. Azken batean, lorontzi batean lurra imitatu nahi izaten dugu, nekazaritza ekologikoan lurra lantzen dugulako, ez landareak. Substraktua ere oso garrantzitsua da.

Lur hori edozein ongari kimikorekin ez erabiltzea komeni izango da, batez ere barazkiok jateko badira, ezta?

Nekazaritza ekologikoa irakatsi eta praktikan jartzen dut. Hogeitaka urtean dihardut: Nafarroan neuk eman nuen izena lehenengo. Orturako eskatzen dudana, balkoirako ere eskatzen dut: balkoian tomate bat landatu behar baduzu, pestizidarik ez erabili; hori egiteko zoaz dendara eta erosi Alme-

riakoa. Polita da, gainera, produktua norberak ekoiztea eta osasuntsua izatea.

Lurra nola landu horretarako?

Printzipioz, hirietan ez da aparteko arazorik izaten. Landa ingurunean laboreei lotutako fauna bizi da: Bilbon, esaterako, zorriak topatzea zaila da.

Etxean konposta egiteko aholkurik eman-go zenuke?

Ez du merezi, nahiz eta balkoian landareak jarri. Konpostak zera behar du: altuera zehatz bat, hezetasuna, nitrogenoa eta karbonoa. Jendeak etxean konpostera duenean haxe botatzen du: letxuga orriak, lentejak, okela soberakinak, porruen hostoak. Dena nitrogenoa. Karbonoa falta da, gai lehorra –lastoa, zerrautsa edo belar ondua–. Karbonorik ezean, gaiak usteldu, eta demaseko kiratsa darie. Infekzio gune bat baino ez da. Jendeak ez daki konpostearik erabiltzen.

Hirietako balkoi eta terrazetako ortuei buruz berba asko egiten da. Moda kontua da?

Ez dago modan. Aspaldiko kontu zaharra da. Amama zaharrek jarduten zuten, balkoietan edo patioetan. Orain ikastaroak eta hasi dira hemen, baina 2004an Unesco aholkua eman zuen norberak ahal duen lekuan landatzeko, batez ere herrialde pobretuetan. Vezuelan eta Kuban, esaterako, hirietan landatzeko nazio planak daude. Kuban ortu urbano mordo dago. Lehen, marinelek itsasontzietan landatzen zuten, barazkiak behar zituztelako eskorbuto gaitzari aurre egiteko. Txinoek ere lantzen zuten gai hau, eta ez ditzagun ahaztu Babiloniago lorategiak.

Etxeko balkoian barazkiak landatzeko aholku batzuk

Orientazioa: argia oso garrantzitsua da. Gutxienez zazpi-zortzi ordu izan beharra dago. Iparrera ematen duen balkoian, letxugak edo kipulinak sartu daitezke udan, baina ez tomate-rik. Hegora begira, tomateak, pepinoak, kalabazinak eta abar lortu daitezke.

Substraktua: Turba, lur begetala, harea eta perlita nahastatzea komeni da, Esparzaren iritziz. Konposta edo zizare-humusa erabili daitezke.

Lorontzien tamaina: Lorontzi handiak edo jardinerak erabiltzea komeni da. Lorontzia txikia bada, landarea txikia izango da, sustraiak lurrean zabaldu behar dituelako. Kontuz, hala ere: etxeak lorontziren pisuari eutsi behar dio.

Kontuz ureztatzean: Ureztatzea ez da obsesio bihurtu behar. Erreguladore merkeak saltzen dituzte etxeko landareak ureztatzeko. Egokiak dira egun batzuetan ez badago inor etxean.

Izurriteak: Hirietan, zailagoa da intsektu-izurriteak egotea, fauna hori nekazari-inguruan bizi delako gehienbat. Hala ere, badira intsektizida eta plagizida ekologikoak. Horrez gain, kobrea erabili daitezke, tenperatura eta hezetasunaren ondorioz, gorrinari aurrea hartzeko kontra. Sufreak, berriz, eltxo zuria- ren edo amiarma gorriaren kontra jarduteko balio du. Produktu sorta zabala dago.

Kukulua, oso egokia: Tuterako kululua balkoirako oso egokia da. Txikia denez, ale gehiago sartu daitezke. Hogeitaka egunean jateko moduan egon daitezke. Gainera, moztutakoan berriz irteten da.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Pozik gaude

Galizako Kultura Etxeak, presidentea buru duela, elkarteko kide guztien izenean, poztasuna erakutsi nahi die Elgoibarko herriari eta agintariei, gauzak behar bezala izateagatik eta jendea etortzeagatik, hil honetako 8, 9 eta 10ean izandako kultura ekitaldietan.

Galiziako letren egunak harrera ezin hobeia izan duenez, bihotza erabat hunkituta, Elgoibarko herriko bizilagunei eskerrak eman nahi dizkiegu, buru-belarri parte hartu dutelako. Hurrengo urteetarako, muga oso goian jarri dute.

Besterik gabe, hurrengo urterako lanean hasiko da etxe hau, ospazikunok hobetzeko asmoz, Elgoibarko gure herri honen gozamenetarako.

Ez dugu ahaztu nahi Elgoibarko Udalari eskerrak ematea, bera gabe ezin izango baikenitu ekitaldiok antolatu. Herrikerikideoi jaietan ondo pasatzen zertxobait lagundu dizuegulekoan, Galizako Kultura Etxeak 2010ean, etxe honentzako jai hain seinatuotan, berriz elkartzeko opa dizue.

Manuel Amaro Lorenzo
Galiza Kultura Etxeko presidentea ☺

Eskerrik asko

Joan zen asteburuan Valladoliden izan gara Espainiako eskubaloi kadete mailako sektorea jokatzeko. Guretzat egun ahaztezinak izan dira, ez bakarrik kirol aldetik, baita giza-harremanen aldetik ere.

Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Sanlo eskubaloi taldeari, IMH

gure babesleari, Irati, Igor eta Antxon gure taldeko arduradunei.

Eskerrik asko, bertara hurbildu ziren guraso, lagun eta jarraitzaile sutsuei, eta, nola ez, orkestran parte hartu zuten Ion, Egoitz eta Joanesei. Baita ere, arrazoi ezberdinak direla medio, joan ezinik geratu ziren hainbat guraso eta lagunei.

Eta ez dugu ahaztu nahi eskerrak ematea gure entrenatzaile den Lorea Gabilondori, gure barrutik onena ateratzen jakin duelako, eta benetako lagun giroa izan dugulako. Mila esker.

“Goazen, Sanlo, goazen. Sanlo txapeldun”.

Amaia A., Ane U., Garazi A., Ainhoa, Esti, Ainhitze, Ane A., Kristina, Maite, Izaskun, Ane I., Amaia B., Aintzane, Maria, Maialen, Garazi O. ☺

Garoiña itxi orain!

Jakina da energia nuklearra oso arriskutsua dela, ez soilik, Txernobil gertatu bezala, ezta zandaren kasuan. Arazorik izan gabe ere, badira nahikoa txosten zentral nuklearren presentzia minbiziarekin zuzenean erlazionatzen dituztenak: Alcalá de Henaresko Unibertsitateko eta Guadalajarako Ospitaleak 2003an eginiko txostenak edo Carlos III. osasun institutuko minbizi epidemiologia sailak 1999 eta 2001 urteetan kaleratutako ikerketen emaitzak kasu.

Beste arazoetako bat hondakin nuklearrekin zer egin izaten da. 25, 40 edo, gehienez jota, 50 urteko ustiapen arriskuaren ondoren, hondakinok zaintzapean egon behar dute erradiazio nuklearra jaitsi

arte (gutxienez 10.000 urtean kalkulatu da), eta, noski, horren kostua gobernuen bitartez herritarrok jasan behar dugu.

AHTK funtzionamendurako elektrizitate kantitate handiak behar ditu, eta hori hornitzeko zentral nuklear nahiz gasezko termikoak behar dira. Beraz, behin elektrizitatea lortuta, beste arazo bat garraioa da. Horretarako, 400.000 voltetako autopista elektrikoak egin behar dira kontsumituko den lekuetara garraiatzeko, Castejon-Gasteiz linea kasu. Horrek eragingo lukeen txikizioa eta eremu elektromagnetikoak ere minbiziarekin erlazionatuak daude.

Garoiña da Euskal Herriatik gertuen daukagun zentral nuklearra, eta aurreikusita zuen biziraupena ondo betea du dagoeneko. Halere, uztailearen 7an erabaki behar dute 40 urteko Espainiako zentral zaharrena den eta istripu eta intzidentzia handiena eduki duen honi beste luzapen bat eman behar dioten ala ez.

Garoiñaren egungo egoera arriskutsua da oso. Azken urtean bakarrik lau geldialdi izan ditu, eta horren berriemaile ez da Segurtasun Nuklearreko Kontseilua izan, talde ekologistak baizik. Horregatik, beldur gara Zapaterok, itxiko zuela aginduraren, promesa ez duela beteko.

Hori dela eta, maiatzaren 30ean, Gasteizko Ama Zuriaren Plazatik arratsaldeko 7etan irtengo den manifestaziorako deialdia egiten dugu.

AHTren kontrako taldea ☺

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Maialen
Olazabal

Kaixo, Ane!

Kangchenjunga (8.586 metro), Edurne Pasabaneke inoiz ahaztuko ez duen beste mendi bat. 8.000 metrotik gora zerua inoiz baino gertuago izango zuen, eta izarrek ere hemen baino dirdira handiagoa izango zuten. Hala ere, bere sufrimendu aurpegia, nekea eta malkoak ikusi nituen telebistan. Bere kideei han utzi zezaten eskatu zien; ezin zuela jarraitu. Baina arrastaka bada ere, lortu zuen jaistea.

“Pozik handienak

esfortzu handien ostean etortzen dira”

Momentu gogorak pasatuko zituen, baina orain pozik eta irribarrez dago. Datorren urtean beste zortzimilako bat egitea du buruan. Sufrimenduen osteko poza; horrenbeste denboran amets izan dena egia bihurtzea. Nahiz eta bizitzako une txarrenak pasatu, nahi dugun hura lortu eta esku artean dugunean dena ahazten zaigu. Pozik handienak esfortzu handien ostean etortzen dira.

Daukagunarekin konformatzen jakin behar dugula askotan entzutuen dugu. Baina noizean behin ilusio eta ametsen kutxa ireki, horietako bat eskutan hartu, eta lortu arte borrokatzea ez al da beharrezkoa? Helburuak errealitate hurbilegi egotea ez da ona, baina urrunegi jartzea ere arriskutsua izan liteke. Zer diozu, Ane?



Ane
Odria

Badakizu zer esaten duen lagun handi batek? Hankak lurrean izan behar direla bai, baina eskuak zeruan. Ondo diozun moduan, helburuak errealitate hurbilegi egotea ez da ona, eta urrunegi jartzea ere arriskutsua izan liteke, baina zer da ba bizitza, helburu, ilusio eta ametsik gabe? Nireak, behintzat, ez luke zentzu handirik izango. Ez dut esan nahi beti ez daukagun horren bila ibili behar dugunik, ez da hori kontua. Baina, ondo baino hobeto dakizu, Maialen, ahal den heinean eskuak zeruan izatea gustatzen zaidala, eta itsutu gabe, baina utopian sinesten dudala.

Pasabaneke, bizitzaren eta heriotzaren arteko mugatik gertu gertu eta gero, irribarrea jantzi du berriro ere, pozik dago bere helburua bete delako. Ilusio bat, azken finean. Nik garbi daukat poza are handiagoa dela esfortzuren bat atzean egon denean; egindako lanak emaitzak eman dituen seinale. Handia da hori.

“Hankak lurrean izan behar dira,

baina eskuak zeruan”

Badakit, Maialen, nire erantzuna jasotzean, liburu artean murgilduta ibiliko zarela eta ilusioak ez dituzula nahi bezain gertu ikusiko. Hala ere, eutsi gogor zureari, badakizu eta liburu artean emandako orduak etekina aterako dutela, eta uste baino lehen, bata zuria jantzita ibiliko zarela batetik bestera. Orduan bai, orduan, zure helburuetako bat beteko da, eta zergatik ez, ilusio bat. Animo, falta diren egunetan, eta hasi udarako amets eta ilusioak pilatzen!



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Merkataritza sustatzeko kanpaina jarri dute martxan Txankakuak, Udalak eta Barren-azokak.

Non egiten dituzu erosketak?



Mari Caraballo
53 urte, etxeoandrea

Eguneroko erosketa txikiak herrian egiten ditut, baina bestela Durangoko supermerkatu handi batera joaten naiz. Askoz merkeagoa da. Gasolina eta autoaren gastua kontuan hartuta ere, dirua aurrezten dut. Bizkaian jantziak ere merkeago daude.



Maria Arenas
33 urte, administraria

Normalean, Elgoibarren erosten dut dena, bai janaria eta baita arropak ere. Herriko pare bat dendatan erosten dut dena. Batzuetan, Bilbo aldera joan izan naiz jantziak erostera, baina nik ez dut prezioan alde handirik igartzen. Ondo ikusten dut dirua herrian gastatzeko saiakera.



Florentino Ortega
65 urte, jubilatua

Elgoibarren egiten ditut erosketak. Batzuetan denda txikietan, eta beste batzuetan supermerkatu handietan. Produktuen prezioak begiratzeko egiten ditut, eta merkeen dagoen lekura joaten naiz erostera. Niretzako oso ondo dago dirua herrian gastatzea.



Elorri Irusta
18 urte, ikaslea

Arropak erostera lehen gehiago joaten nintzen Donostiara, baina azkenaldian denda asko zabaldu dituzte Elgoibarren, eta bertan erosten dut gehiena. Janaria herriko dendetan erosten dut. Ez daukat erosketa handiak egiteko aparteko ohiturarik.

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA
2.0 PROFESIONALAK

AURREMATRIKULA EKAINAREN 1 ETIK 12 RA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK
ERIZAINTZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK **DOHAINIK**

GOI MAILAKO ZIKLOAK
ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA

902 11 20 25 LANBIDE@ARIZMENDI.IKASTOLA.NET
WWW.ARIZMENDI.EU

Arizmendi
ikastola



San Frantzisko kalera sartzeko piboteak hondatuta daude azken asteotan: "San Frantzisko kalera sartzeko piboteak ez dabilza ondo azken asteotan. Txartela eduki arren, ez dira bajatzen, eta ezin izaten dugu sartu. Askotan, barrutik kanpora irteten den autoren baten zain egon behar izaten dugu, barrura sartu ahal izateko. Eskertuko genuke lehenbailehen konpontzea, izan ere, zamalanak egiteko askotan sartu behar izaten baitugu Kultur Etxe ingurura". ⇒



Albitxuriko industriagunetik Azkarateko errepide zaharrra doan bidea ez dago batere ondo: "Azkenaldian Albitxuriko industrigunea asko hazi da. Gehienak Melitongo zubitik igotzen badira ere, badago Azkarateko errepide zaharretik gora doan bidea erabiltzen duenik ere, baina bide hori ez dago batere ondo. Estua da eta bi auto gurutzatzeko lekurik ez dago. Beheko aldean gainera, zulo handia dago errepidera irteteko, eta autoaren beheko aldeak beti lurra jotzen du. Eskertuko genuke bide hori apur bat hobetzea". ←



Txalo bero bat herriko berdegune eta errotondak apaintzen dituztenentzako: "Udaberria oso polita da, eta Elgoibarren denboraldi eder horren koloreak nabari dira. Herriko berdeguneak eta errotondak oso dotore daude, lorez apainduta eta kolore biziz. Lan hori egiten dutenek txalo bero bat merezi dute. Segi horrela!".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

I. URTEURRENA

ASIER ARANBERRI GUEREÑO



2008ko maiatzaren 31n hil zen.
Bere oroimenean I. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 31n, goizeko 11:30etan, Pasai Donibaneko San Juan Bataiatzailearen parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.

Bere ama, osaba-izebak eta lehengusuak



Merktaritza eta ostalaritza sektorea sustatzeko 'Gure denda, gure poza' kanpaina jarriko dute martxan

Elgoibartarrek erosketak herrian egitea da kanpainaren helburua

Elgoibarko Udalak, Txankakuak eta Merkatu Plazako Barren-Azoka elkarteak *Gure denda, gure poza* kanpaina aurkeztu dute, Elgoibarko merktaritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea sustatzeko. Urte amaierara arte, hainbat ekintza egingo dituzte: parte hartzen duten establezimenduetan, kanpainaren irudia jarriko dute; herriko hainbat gunetan, kartel handiak jarriko dituzte ikusgai; dendariak gozokiak banatuko dituzte; eta etxe guztietara kanpainaren logotipoa dauzkaten 4.500 erosketa-poltsa banatuko dituzte, ekainaren 1etik 6ra.

Herri-giroa

Elgoibartarrek dirua herrian gastatzea da kanpainaren helburua. Herritarak animatzeko, opariak banatu eta zozketak egingo dituzte. Esaterako, kanpainaren poltsa erabiltzen dutenei txarteltxo bat emango diete, eta bizikleta baten zozketan sartuko dira.

Jendea erosketak egitera kanpora ez joateko, herri giroa sortzea garrantzitsua dela aipatu du Alfredo Etxeberriak. Horretarako, urte amaierara arte antolatuta dauden hainbat ekintza aprobetxatuko dituzte kanpaina sustatzeko: besteak beste, Tri-



nitate jaiak, pintxo lehiaketa, hileko feriak, aire libreko zinemaldia eta abar.

Kanpainan parte hartu nahi duten establezimenduek ekainaren 5era arte daukate izena emateko epea. Informazio gehiago, 943 741050 telefonoan (Oihana Barrutia)

Ardo eta urdaiazpiko dastaketa azken zapatuko ferriko nobedadeak



Baserriko produktu eta ganaduez aparte, bi berrikuntza izango ditu bihar, maiatzak 30, egingo den ferriak: batetik, Merkatu Plazako Barren-Azoka elkarteak antolatuta, urdaiazpiko dastaketa izango da Nafarroa Plazan, 11:00etatik aurrera. Urdaiazpiko aditu bat etorriko da, eta doan banatuko dute euren produktua. Trinitateetako Danborradak, bestalde, ardo dastaketa antolatu du. Nafarroa Plazan eta Leku Ederren jarriko dituzte dastaketa guneak, eta arratsaldeko 15:00ak arte hainbat ardo mota dastatzeko aukera izango da. Horrez gain, gaur arratsaldean, ardo katari buruzko saioa eskainiko du ardo-aditu batek Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera.

Eguerditik aurrera igarri zen greba orokorra Elgoibarko kaleetan

ELA, LAB, ESK, STEE, EHNE eta Hiru sindikatuek deituta, greba orokorra izan zen maiatzaren 21ean. Goizean goiz lasaitasuna zen nagusi herriko kaleetan: harategi gehienak itxita zeuden, baina gainontzeko komertzio eta establezimenduak normal ari ziren lanean. Eguerdiko 12:00etan, ordea, herriak beste itxura bat hartu zuen: erdi-guneko komertzio txikiek eta taberna gehienek atea itxi egin zituzten. Merkataldune handiek, banketxeek eta aurrezki kutxek ez zuten grebarik egin, eta industria alorrean ere, jarraipen ezberdina izan zuen grebak. BARREN aste-karia grebaren jarraipeneko datuak biltzen ahalegindu da, baina sindikatuek ez dute oraindik balorazio zehatzik egin.



Izena **Juan Mari Mendizabal**



Zortzi urte eta erdiko kartzela zigorra bete beharko du 18/98 sumarioan auzipetu zuten Juan Mari Mendizabal elgoibartarrak. Auzitegi Nazionalak hamahiru urteko zigorra ezarri zion, baina Gorenak arindu egin du. Auzitegi Nazionalak zigortutako 47 lagunetatik 37ri zigorrak murriztu dizkie Auzitegi Gorenak, eta beste bederatzia absolutu egin dituzte.

Bestalde, atxilotu aurretik Elgoibarren bizi zen Imanol Iparragirrek sumario berean 11 urteko zigorra zeukan, eta Gorenak emandako sententziaren arabera, zazpi urte eta sei hilabete egin beharko ditu kartzelan.

Zenbakia **349.000**

Antonino Arrillaga kalea urbanizatzeko obrak lehiaketara atera ditu Udalak, 349.000 euroko aurrekontuarekin. Lanek 2009. urtean amaitu behar zuten, baina Udaleko arduradunek luzapena eskatzeko asmoa daukate. Onartzen badiete, 2010eko martxoan hasiko dira lanak. Beranduenez, 2010eko irailerako lanak amaituta egotea espero dute.

Irudia **Elkartasun Eguna**

Debabarreneko Amnistiaren aldeko mugimenduak antolatuta, Elkartasun eguna egin zuten Elgoibarren joan zen zapatuan. Mutrikutik eta Ermutik abiatuta, martxa bana iritsi zen, eta Madalan egin zieten harrera. Herri bazkaria eta arratsaldean manifestazioa egin zituzten. Eguna amaitzeko, kontzertua izan zen Gaztetxean.



Ikerketa alorrean maila ona erakusten ari da Ideko

Ideko IK4 zentro teknologikoren lau proiektu sartu dituzte Europako Ikerketa Programa Markoan. Horri esker, Elgoibarko enpresak lehen-goko postua hobetzea lortu du nazioartean. Era berean, mekanizazio prozesuen garapenean eta erre-minta-makina berrietan erreferentzia izatea lortu du.

Nagusientzako oporrak

Imsersoren oporraldi programan izena emateko epea ekainaren 20an amaituko da. Interesatuak Udaleko Ongizate Sailean edo jubilatuaren biltokian jaso ditzakete eskaera orriak.

Mikel Olaizola Eskolarteko Bertsolari txapelketan

Mikel Olaizola bertsolariak Gipuzkoako bertsolari txapelketan finalean hartuko du parte, 15 eta 18 urte bitarteko mailan. Azken kanporaketa gaur arratsaldean izango da, Donostiako Manteo kiroldegian, 16:00etatik aurrera.

Madalako parkea ekainaren 5ean inauguratuko dute

Trinitate jaietarako prest egongo da Madalako parkea. Azken egunotan gogor ari dira lanean, eta datorren barixakuan, ekainak 5, inauguratuko dute. 2008. urte amaieran hasi ziren Madala ingurua urbanizatzeko lanak. Parkeko petrila kendu, eta Herriko Antzoki ingururaino berritu dute ingurunea. Proiektuak 971.419 euroko kostua izango du.



Trinitate auzoko eliza berriztatua inauguratuko dute ekainaren 6tik 8ra ospatuko diren jaietan

Herri kirolen erakustaldia izango da, besteak beste, trinitateetan

Herriarren laguntzarekin berri dute Trinitateko eliza, eta datorren ekainaren 6an egingo dute eraikin berriaren inaugurazioa. Ekitaldian Mendaroko Udaleko ordezkariak, Foru Aldundikoak, herritarrek, Gotzaitegiko ki-deak eta Gipuzkoako Kutxako ordezkariak izango dira.

2008an hasi ziren Trinitate eliza berri-zeko lanak, eta 300.000 euro inguruko aurrekontua izan zuen obrak. Teilatua zegoen egoerarik okerreanean, baina gainontzeko egiturak ere berri-zeko beharra zeukan. Foru Aldundiak %70 finantzatu du. Gainontzekoa Udalak, Gotzaitegiak eta herritarrek eginiko lanari esker lortu dute.

Egitaraua

Ekainaren 7an izango da Trinitate Eguna, eta auzoko jaiak ospatzeko ekin-tzen artean kokatu dute baselizaren inaugurazioa.

Bezperan hasiko dira jaiak, Trinitate-ko zuhaitza jartzearekin batera. Kanpaik



joko dituzte eta txapliguak jaurtiko. Ekainaren 7an, txistularien kalejira, meza eta musika eskolako ikasleen kontzertua izango dira goizean, eta eguerdian herri-kirolen saioa izango da. Txingalariak, ha-

rrijasotzaileak, aizkolariak eta trontzalaria-riak arituko dira, besteak beste.

Jaiak amaitzeko, meza nagusia, Ikastolako umeen bertso saioa eta herri bazkaria izango dira hilaren 8an.

Pleno berezia



Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarrenera arteko 50 ikaslek parte hartu zuten eguazteneko pleno berezian, Eskola-Agenda 21 ekimena dela eta. Ikasturtean, 198 ikaslek energia kontsumoari eta klima aldaketa landu ondoren, plenoan Mendaroren diagnosia eta proposamen batzuk egin zituzten.

Argazki rallya antolatu du Udalak datorren zapatarako

Mendaroko lehenengo argazki rallya prest dauka Mendaroko Udalak datorren zapatarako, ekainaren 6rako. Proba arratsaldean izango da, eta apuntatu nahi duenak 16:30ean eman beharko du izena.

Argazkilariek 17:00etatik 20:00etara izango dute argazki ateratzeko tarte. 20:00etan Udalean entregatu beharko dituzte irudiak. Partaide bakoitzak gehienez bost argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Sari banaketa ekainaren 14an egingo da. Argazki onenari 170 euroko saria emango diote, bigarrenari 100ekoa, eta hirugarrenari 80koa. Argazkiekin erakusketa martxan jarriko duela iragarri du Udalak.

Otsalar Urainek Zornotzako zaldi proba irabazi du kategoria konbinatuan

Joan zen domekan, CAC Kate-Bi zaldi proba jokatu zen Zornotzan. Mendaroko Otsalar Urain gazteak kategoria konbinatuan hartu zuen parte, eta bera izan zen irabazlea.

Probak hiru zati izan zituen: lehenengo hezte, hau da, zaldiarekin figura

batzuk egin behar izan zituzten parte hartzaileek; ondoren, salto-zirkuitua traba batzurekin; eta, azkenik, kros-zirkuitua mendian zehar. Otsalar Urainek *Zalamero* izeneko zaldiarekin parte hartu zuen, Promozio mailan, beste hamaika partaiderekin batera.



Musika eskolan izena emateko epea zabalik

Ameikutz musika eskolan datorren ikasturterako izena emateko epea ekainaren 19an amaituko da. Besteak beste, musika-hizkuntza, tailerrak, pianoa, flauta, biolina, soinua, saxoa, trikitixa, tronpeteta eta tronboia jotzeko eskolak eskainiko dituzte. Interesatuak ondorengo telefonoan eskuratu dezakete informazio gehiago: 619 306 493

1959koen kinto ospakizuna

1959an jaiotako mendaroarrak kinto ospakizuna egingo dute ekainaren 7an. 12:30ean jarri dute hitzordua udaletxe aurrean, eta ondoren, Trinitate Eguna dela aprobetxatuz, bertako jaietara hurbilduko dira. 14:30ean Landa jatetxean egingo dute bazkaria. Interesatuak ondorengo telefonotan eskuratu dezakete informazio gehiago: 943 740 397 (Gemma Garate) edo 943 033 633 (Kontxi Arrieta).

Mendaroko alebinek denboraldi ona egin dute Eskolarteko Futbol Txapelketan

Mendaroko alebin mutilen taldea Gipuzkoako finalera iritsi da Eskolarteko Futbol Txapelketan. Finalurreko ona egin zuten, eta azken partida Ordiziako taldearen kontra jokatu zuten. Partida lau tantura berdinduta amaitu zuten, eta penaltien jaurtiketan mendaroarrak galdu egin zuten. Bederatzi penalti bota ondoren, 6-5 izan zen azken emaitza, ordiziarren alde.

Cecilio Manteca izan da talde honetako entrenatzailea, eta lan ona egin du denboraldi honetan. Bosgarren eta seigarren mailako ikasleekin talde polita eta giro bikaina sortu ditu. Emaitza onak horrekin batera iritsi dira. Taldearen ibilbidea jarraitu dutenek txalotu egin nahi dituzte mutilak eta entrenatzailea.



Gure berbak

Hiztegixa (6)

Aurreko astietan ikusi genduzen Mendebaldera hurreratzen gaituen ezaugarri lexikuak, berbak eta berben aldaerak.

Gaurkuan eta hurrenguetan, euskara giputzera hurreratzen gaituen hitz eta aldaera batzuk batuko ditut, ikusi daigun hiztegixaren arluan ere batetik eta bestetik dabala gure hizkeriak, dialektologuak sarritan "bidegurutze" linguistiko deitu izan deben honek. Hona, ba, hórretako batzuk:

- ♦ *laga* (eta ez "itxi")
- ♦ *bukatu* ("amaittu" baiño *gitxiago* erabiltzen dan arren)
- ♦ *eskubixa* ("eskumia"-rekin batera)
- ♦ *esnatu* (eta ez "i(ra)tzarri")
- ♦ *faborez* ("mesedez eta *faborez*" bezelako esamoldietan)
- ♦ *hitz* ("berba"-rekin batera)
- ♦ *hitz egiñ* ("berba egiñ"-ekin batera)
- ♦ *urruti* (eta ez "urriñ")
- ♦ *nahi izan* (eta ez "gura izan")
- ♦ *saltaka* ("antxitxika"-rekin batera)
- ♦ *zaila* (eta ez "gaitza" edo "gatxa")
- ♦ *mingaiña* (eta ez "mihña")
- ♦ *guraizak* (artazixak-ekin batera)
- ♦ *heldu* ("oratu"-rekin batera)
- ♦ *lana* ("biharra"-rekin batera)
- ♦ *azkar eta bizkor* (eta ez "ariñ")
- ♦ *bueltia* (eta ez "osteria")
- ♦ *hankautsik* (eta ez "ortozik")
- ♦ *simaurra* (eta ez "satsa")
- ♦ *noizian behiñ*
(*"lantzian behiñ-ekin batera*)
- ♦ *anaixa* (eta ez "neba")
- ♦ *aurrena* ("larena"-rekin batera)
- ♦ *trikua* ("kirikixua"-rekin batera)
- ♦ *damutu* (eta ez "garbatu")
- ♦ *pixka* (*ba)t* (eta ez "apur bat")

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1963

Aste honetako erretratu zaharra Ainhoa Castrillejok laga digu. Bere izebaren ezkontzako erretratua da. 1963ko maiatzaren 18an ezkondu ziren San Bartolome parrokian, eta sasoi hartan, elizatik jatetxera oinez joateko ohitura zegoen. Binaka jartzen ziren, aita puntakoa aurretik, eta ezkon berriak ondoren. Beheko argazkian lehenengo bi ilaretan doazen bikoteak ezagutu ditugu, baina seguru, gainontze-koek euren burua ezagutuko dutela:

Lehenengo ilaran: Gerardo Castrillejo (†) (aita puntakoa, eta Juanita Gabilondo (†) emaztea.

Bigarren ilaran, ezkon berriak: Lupe Castrillejo eta Jacinto Sota.



I. URTEURRENA

ASIER ARANBERRI GUEREÑO

2008ko maiatzaren 31n hil zen, 23 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko mezara gonbidatzen zaituztegu bere Elgoibarko familiak, zapatuan, maiatzak 30, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



IKASBARRREN



Herri Eskolakoak Aloñan



Herri Eskolako guraso taldeak antolatuta, Aloñara egin zuten ikasturteko azken mendi irteera ikasle, irakasle eta gurasoek. Arantzazutik abiatuta, 1.248 metroko mendi gailurrera iritsi ziren. Duruko zelaietan bazkaldu ondoren, Arikruzko kobazuloak bisitatu zituzten.

PILAR IKASTETXEKOAK PORT AVENTURAN

Pilar Ikastetxeko DBH 2ko ikasleak Port Aventura inguruan eman zituzten lau egun. Oso gustura ibili zirela, eta berriz itzultzeko gogoz etorri direla adierazi dute.

IKASTOLAKOEN BOST SARI LORTU DITUZTE KOSMODISEA LEHIAKETAN



Elgoibar Ikastolako bederatzita taldek hartu dute parte Kosmodisea lehiaketan, eta guztira bost sari eskuratu dituzte. Lehiaketaren helburua teknologia berriak erabiltzea da: blogak, audio digitala, editatzeko aplikazioak...

Ikasle ingelesek **BARREN** bisitatu dute

Elgoibar Ikastolarekin elkar-trukean, Liverpooloko ikasleak etorri dira aurten ere Elgoibarrera, eta astelehenean **BARREN** bisitatu zuten. Aldizkaria nola egiten den gertutik ikusi dute, eta euren zalantzak argitu ziren.

Ekintzaile Eguna Institutuan

Elgoibar BH Institutuan, Ekintzaile Eguna ospatu zuten joan zen barixakuan. Ekitaldian Zeleta baserriko Anselmo Salazar, Miski elkarteko Gemma Agirregomezkorta eta Gaizka Gasteain ikasle ohia izan ziren euren esperientziak kontatzen. Ekintzaileak duen garrantzia ikasleei ohartaraztea zen jardunaldiaren helburua.



Musikak Elgoibarko kaleak hartu ditu!

Debabarreneko 650 ikaslek hartu zuten parte Elgoibarko musika eskolaren urteurrenean

Debabarreneko zazpi musika eskolatako 650 ikaslek parte hartu zuten zapatuan Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko Elgoibarren antolatutako jaialdi erraldoian. Plaza Handian, Nafarroa Plazan eta Leku Eder parkean jarri zituzten agertokietara igo ziren musikariei esker, erreminta-makinaren hiriburua musikaren hiriburu edo epizentro bihurtu zen zapatuan. Eguraldia lagun, kalejirak ere egin zituzten, eta herrian batutakoek belarrria gozatzeko aukera eduki zuten. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko www.elgoiBAREN.net helbidean sartu.



IMHko 'Goazen' euskara planak bost urte bete ditu eta balantze positiboa egin dute arduradunek

Sinatutako hitzarmenari esker 3.000 euro emango dizkio Udalak proiektuari

Erreminta-makinaren Institutuan (IMH) euskara sustatzeko *Goazen* planak bost urte bete dituela eta, planak izan duen ibilbidearen balantzea aurkeztu dute aste honetan sustatzaileek. Horrekin batera, Udalarekin elkarlanerako hitzarmena berriztu dute. Arduradunek bost urteko ibilbidearen balantze positiboa egin dute: IMHk, 2003an euskara planari ekin zionean, laneko ahozko harremanen %34 euskaraz ziren, eta gaur egun harremanen %47 dira euskaraz. Euskaldunen arteko ahozko komunikazioetan ere nabarmen egin du gora euskararen erabilera zentruan, %52tik %69ra.

Sinatutako hitzarmenari esker, Elgoibarko Udalak IMHri 2009rako 3.000 euro emango dizkio, *Goazen* proiektuaren jarduera finantzatzeko. Planaren helburu nagusiak IMHn euskararen erabilera sus-



tatzea eta erreminta-makinaren sektorean eragitea dira.

Partaideak

Hitzarmenaren sinadura ekitaldian izan ziren Alfredo Etxeberria alkatea, Jon

Peli Uriguen Euskara Batzorde burua, Joxean Egaña IMHko zuzendaria, Edurne Bilbao ikastetxeko komunikazio eta euskara arduraduna eta Isusko Diez Ahize-AEK-ko hizkuntzen kudeaketarako teknikaria.

Ainara Burgañaren logotipoa aukeratu dute bandaren 125 urteak ospatzeko



Aukeratu dute Elgoibarko Udal Musika Bandaren 125. urteurrenaren irudia izango den logotipoa. Ainara Burgaña elgoibartarraren lan batek irabazi du Udalak eta Bandak berak antolatutako logotipo lehiaketa. Diseinu grafikoko estudio bat dauka Burgañak (Klikart), eta ez da lehiaketa bat irabazten duen lehen aldia. 2010 urtean Bandaren 125. urteurrena gogorarazteko egingo diren ekitaldiak iragartzeko ekitaldietan erabiliko dute logotipoa.,.

Expresion Sonora itzuliko da Trinitate Jaietan

Trinitate Jaiak Elgoibarren: ekainaren 5ean hasiko dira, eta asteburua osoa iraungo dute.

Barixakuan, 23:00etan *Expresion Sonora* kontzertua emango du Madalako Parkean. Zapatuan, Nagusien Danborradak joko du Plaza Handian Udal Musika Bandak lagunduta. Gustu guztietarako programa egongo da datorren asteburuan.



Haundik duen guztia eman beharko du bihar Mintxetan mailaz igo ahal izateko

Udalak eta Klubak partidara oinez joateko deia egin dute

Burgosek abantaila handia eskuratu du Bigarren B mailara igotzeko fasearen joaneko partidaren, Haundik 2-0 galdu baitzuen joan den domekan, Burgos CF taldearen aurka, Plantio futbol zelaian jokatutako norgehiagokan. Saillkapena garesti daukate elgoibartarrek, gaztelarren abantaila handia baita; ez, ordea, erabakigarria. Bihar 17:30etik aurrera, Mintxetan jokatuko duten itzulerako partida hil ala bizikoa izango da. CD Elgoibarrek eta Udalak Mintxetara oinez joateko deia egin die zaletuei.

Hiru gol behar aurrera jarraitzeko

Burgosko jokalariek Haundikoak baino gehiago izan ziren joaneko partidaren. Gaztelarren lehen gola Mauretak sartu zuen buruz 26. minutuan eta atsedenaldira bi goleko aldeaz iristeko aukera ere izan zuten, baina Iñakik Burgosen aldeko penalti bat huts egin zuen.

Horrela bada, bi goleko aldeari buelta eman beharko diote Haundikoek Mintxetan. Zailagoak ere ikusi dira bai, baina goetik saiatu beharko dute Jagoba Arrasa-



teren mutilek. Etxetik kanpo sartutako goleko balio bikoitza dutela kontutan izanik, golik ez jasotzea nahitaezkoa izango da Mintxetako partidaren. Hori gutxi ez balitz, kanporaketa berdintzeko bi gol, eta aurrera egiteko hiru gol sartu beharko dituzte Haundikoek.

Erronka zaila den arren, zaleen babesik ez zaie faltako, Burgoseko partidaren erakutsi zuten moduan. Hasieran

gehiago ziren Burgosera Haundi animatzera joateko prest zeuden zaletuak, baina partidaren hasiera ordua ordubete atzeratu zutenenez -20:00etan jokatu zen-, zaletu zuri-gorritz betetako autobus bat bakarrik joan zen azkenean Burgos aldera.

Orain etxean jokatuta, eta aurrean duten erronka ikusita, herritarren babesa beharko dute Haundikoek.

Eskubaloiko senior mailako Gipuzkoako Kopa eskuratu dute Tecnifuelleko neskek



Joan den zapatuan Tecnifuelle senior mailako eskubaloiko taldeak Gipuzkoako Kopa eskuratu zuen, Zumaiako Lubaki kiroldegian, Andoaingo Leitzaranen aurka jokatutako norgehiagokan. Azken minutura arte ez zen erabaki irabazlea. Elgoibartarren atezainak penalti bat gelditu zuen, eta berdinduta amaitu zen partida. Ondorioz, bost minutu luzatu behar izan zuten norgehiagokara. Parekatuta jarraitu zuen lehiak, eta azkenean, gol bateko tartearrekin irabazi zuten elgoibartarrek: 25-24 emaitzarekin.

Bestalde, Elgoibarko Aterpe taldeko neskek ere Gipuzkoako txapeldun geratu dira infantilen mailan. Orain Euskadiko Kopa dute aurretik, eta bihar Ermuko Errotaberri taldearen aurka lehiatu beharko dute Gasteizen.

Bizikletak hartu eta 'Elgoibar bi erroberatan' egingo dute domekan

Plaza Handian hasiko dira 10:30ean

Elgoibarko Herri Eskolako Kalamua gurasoen elkarrekin antolatuta *Elgoibar Bi Erroberatan* egingo dute domekan, eta herri osoa gonbidatu nahi izan dute parte hartzera.

Plaza Handitik hasiko dute ibilbidea 10:30ean, eta Elgoibarko kaleetan buelta eman ondoren, Ermuaren-Sallobenterra joango dira, eta handik Plaza Handira itzuliko dira. Egindako esfortzua orduan freskagarriak emango dizkiete haurrei, eta plazan jarriko duten txosnan txorizoa jateko aukera ere egingo da.

Elgoibar Bi Erroberatan ez da lehiaketa bat, eta antolatzaileek lortu nahi duten helburua distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzea da, baita bizikletan ibiltzeko ibilbide egokiak eskatzea ere.



Igeriketa Eguna ospatuko dute bihar, zapatua

Bihar, zapatua, bainujantzia hartu eta Olaizaga kiroldegira joateko eguna izango da. Izan ere, Igeriketa Eguna ospatuko dute 6 eta 14 urte bitarteko ikasleek. Frogak goizean egingo dituzte umearen adinaren arabera. 10:00etan hasita, 10 eta 14 urte bitartekoek hainbat froga egingo dituzte. 11:00etatik aurrera, 6 eta 9 urte bitartekoek uretako jolasetan parte hartuko dute.

Txomin Rogel eta bere txakur 'Valdi', onenak

Joan den asteburuan Larraskandako zelaietan kirol ehizako txapelketa egin zuten, eta Elgoibarko Txomin Rogelek eta bere txakur *Valdi*-k lehen postua lortu zuten. La Union ehiza eta arrantza elkarrekin antolatutako txapelketan hamabost ehizari hartu zuten parte. Behe-lainoak txapelketa bi ordu atzeratu bazuen ere, eguraldiak jaso zuenean, ehizariak bi taldetan banatuta aritu ziren, eta Rogel eta *Valdi* txakurrarentzat izan zen garaikurra.



EMAITZAK

ESKUBALOA

Leizaran **24** – Tecnifuelle Elgo. **25** (Seni.nes.)
IMH Elgo. **46** – Egia **7** (Kad.nes.)
Pneumax Elgo. **29** – Pulpo **41** (Kad.mut.)
Ikus Elgo. **16** – Urrietako **19** (Kad.nes.)
Urnieta **13** – Astigarraga Elgo. **11** (Inf.nes.)
Zarauz **23** – Aterpe Elgo. **24** (Inf.nes.)
Arrasate **32** – Txarriduna Elgo. **18** (Inf.mut.)

FUTBOLA

Burgos **2** – Haundi **0** (mut.nag.)
Elgoibar **5** – Beti Ona **2** (Jub.)
Elgoibar **2** – Touring **1** (Tx.)
Anaitasuna **6** – Elgoibar **6** (Ale.)

ESKU PILOTA

Herriarteko txapelketa

Elgoibar **5** – Donostia **22** (Kad.)
Elgoibar **12** – Donostia **22** (Jub.)
Elgoibar **20** – Donostia **22** (Nag.)

Debarroko txapelketa

Bergara **11** – Lagunak **22** (Nag.)
Lagunak **13** – Bergara **22** (Kad.)

Lagunak txapelketa

Maiztegi **18** – Astigarraga **10** (Ale.)
Larrea **18** – Ruiz **5** (Ale.)
Bollar **4** – Loidi **18** (Ale.)
Gomez **18** – Gurrutxaga **11** (Benja.)
Igartua **18** – Urko **15** (Benja.)
Berrizko 4 1/2ko txapelketa
Arribillaga **22** – Cuz **20** (Jub.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 30

12:30 Elgoibar – Amaikak Bat (Ale.)
16:30 Haundi – Burgos (mut.nag.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Domeka, 31

11:00 Txarriduna – Pulpo (Inf.mut.)

Bost elgoibartarrek amaitu dute Zegama-Aizkorri proba

Sei elgoibartarrek parte hartu zuten domekan Zegama-Aizkorri mendi-maratoian. Horietatik bostek amaitu zuten proba gogorra, eta bik, gainera, postu onak lortu zituzten: Jon Revert 51. postuan eta David Conde 52. postuan sailkatu ziren, hurrenez hurren. Antxintxikariaren arerio nagusia gainditu beharreko 5.470 metroko desnibela izan zen beste behin, baina goiz guztian altxatu ez zen behe-lainoak ere ez zizkien gauzak erraztu, ez parte hartzaileei eta ezta ikusleei ere.

LANA

ESKAERA

- 17 urteko neska euskaldun arduratsua udan goizez edo arratsaldean lan egiteko prest, umeak zaintzen eskolarako. ☎608 686 814 / 943 741 674
- Mutil gaztea, sukaldaritzan, zerbitzari lanetan edo zalmalnetarako prest. ☎664 055 503
- Mutil gaztea, sukaldaritzan, zerbitzari lanetan edo zalmalnetarako prest. ☎617 005 381
- Neska gazte bat, zerbitzari lanak, haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎697 824 727
- DBH eta LHko Matematika eta Gaztelaniako klase partikularak ematen dira uztailean, goizez. ☎943 744 206
- Klase partikularak ematen dira ekaina eta uztailean. Hikuntzak eta LH-DBHko ikasgaiak. ☎658 045 119
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest, arratsaldeko 15:00etik aurrera. ☎943 743 251
- Neska gaztea lanerako prest, bai nagusiak zaintzen, bai orduka garbiketara lanetan ere. ☎638 916 028
- Neska gaztea lanerako prest, bai ontziak garbitzen, bai haurrak edo nagusiak zaintzen. ☎675 940 901
- Uztailean klase partikularak ematen ditut, LH eta DBHko ikasgai guztiak. ☎618 244 804
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎686 420 642
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest eta garbiketara lanak egiteko. ☎628 014 327

- Emakumea lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎610 632 782
- Emakumea lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎618 096 628
- Neska gaztea, zerbitzari lanetan, umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko prest. Esperientziaduna. ☎617 056 828
- Emakumea etxeko zerbitzari, garbiketara eta nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎610 431 118
- Mutila sukaldari laguntzaile, zerbitzari, pinturan edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎647 999 092
- Mutila sukaldari laguntzaile, zerbitzari, pinturan edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎686 274 490
- Neska gaztea haurrak edo nagusiak zaintzeko eta etxeetan, tabernetan edota portalak garbitzeko prest. Orduka. ☎648 603 029

ESKAINAZA

- Sukalde laguntzaile eta kamareroa behar da aste-bururako. ☎ 943 121 262
- Sukaldari laguntzaile behar da. ☎ 943 743 196
- Margolari eta administrari bana behar da, esperientziarekin. ☎ 648 210 852

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Bikote batek etxebizitza behar du alokatzeko. El-goibarren edo Mendaron. ☎ 677 023 673

LOKALAK

- Mugerza kalean garaje itxia alokagai. ☎ 943 743 339
- 2. solairuko garaje itxia salgai Urasandin ("Anaiak"). 13+13 metro koadro. ☎ 620 856 768

MOTORRA

- 4 lagunentzako karabana salgai. Egoera onean. 2.500 euro. ☎ 679 408 078
- 5 ateko VW Polo 1.4 gasolina salgai, 5 urtekoa oso gutxi erabilia, gris metalizatua, aire girotua, oso ondo zaindua, beti garajea, 22.000 km bakarrik! 7.000 euro. 675 007 661 (Dorleta). ☎ 652 716 709

BESTELAKOAK

- Setter ingeles arrazako txakurkumeak saltzen dira, apirilaren 17an jaiotakoak. Guraso ehiztariak. ☎ 625 708 042
- Bikotearentzako logela saltzen da, ohea, armairua eta koltxoiarekin. 2 urte ditu. ☎ 656 788 122
- Egongelako altzariak saltzen ditut eta mikrouhin labea opari. ☎ 652 716 709

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero barren.iragarkilaburrak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK	
Lana / Bestelakoak	Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 5 euro	Astebete : 10 euro
2 aste : 8 euro	2 aste : 17 euro
3 aste : 10 euro	3 aste : 25 euro

ESKERTZA

MARITXU OÑEDERRA URIA

2009ko maiatzaren 18an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




ASIER ARANBERRI GUEREÑO

"Argi bat itzali da
hemen lurrean
berri bat piztu da
han zeru ederrean
beti jarraituko duzu
gure bihotzean".




I. URTEURRENA
2008ko maiatzaren 31n hil zen



• Zorionak, **Perul** Atzo 9 urte bete zenituelako. Muxu asko etxekoan partez.



• Zorionak, **Elsa**, zapatuan 10 urte bete dituzelako. Pa familiaren partez.



• Zorionak, **Ibai**, zure 3. urtebetetzean. Familiaren, eta bereziki, Ikerren partez.



• Zorionak, **Aritz**, 4 urte. Aita, ama eta anaia Mikelen partez.



• Zorionak, **printzesa**, Mamen, Jesus, Danel eta etxekoan partez.



• Zorionak, **Nahia**, 3 urte. Muxuak familiaren partez, bereziki Iratiren partez.



• Zorionak, **Haritz**, zure urtebetetzean, familiako guztien partez.




• Zorionak, **Jon**, atzo 8 urte. Muxu potolo bat familiaren partez.



• Zorionak, **marxosa**, 25ean pilote urte egin dituzelako! Familiaren partez.



• Zorionak, **Ane**, atzo urteak bete zinituelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Sara**, 28an 10 urte bete zenituelako. Pa guraso eta Joneren partez.



• Zorionak, **Adrian**, 3 urtegin dituzelako. Familia guztien partez.



• Iritsi da eguna, **Maialen**, ea zazpi kandelak itzaltzen dituzun. Pa! Etxekoak.



• Zorionak, **Iria!** Familiaren partez, eta bereziki ahizpa Aitanaren partez. Pa!



• Zorionak, **Olaia eta amatxo**, maiatzaren 28an eta 31n urteak betetzen dituzuelako. Patxo asko etxekoan partez.



• Zorionak, **Selene**, hilaren 14an etorri zarelako mundura. Eta zorionak amatxo maite Linaresi eta aitaxo Aitor de los Reyesi, familiaren partez.



• Zorionak aibitxia **Manuel eta Maren**, maiatzaren 29an eta ekainaren 2an urteak betetzen dituzuelako. Muxu handi bana etxekoan partez.



• Zorionak **urezko ezteiak** horren osasuntsu ospatuko dituzuelako. Eguna ederra pasa.



• Zorionak, **Carol eta Irune**. Muxu asko Xuban era Aimaurren partez.



• Zorionak, **Carolina eta Irune**, etxekoan partez. Bereziki aitaixoren partez.



• Zorionak, **Joakin eta Maria!** Bihar 50 urte ezkondu zinetela. Muxu handi bana familia osoaren partez.



• Zorionak, **Ariane eta June**. Iritsi da zuen 3. eta 7. urtebetetzea. Bi muxu handi etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Gari, June eta Arane**, zuen lehenengo urtebetetzean. Ondo pasa ta segi hain bihurri izaten.

OHARRA

Maiatzean agurrak kobratzen hasi gara. **Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza edo handiagoa: 5 euro.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIAK

24 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 29 Garitaonaindia-Bidasolo
- 30 Etxeberria (Santa Ana)
- 31 Etxeberria (Santa Ana)
- 1 Fernandez
- 2 Yudego
- 3 Zabaleta
- 4 Etxeberria (Errosario)
- 5 Ibañez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net



29 barixakua

Aisialdia 17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, bitik sei urtera arteko umeentzako eta euren gurasoentzako saioa. Plaza Handian.

Kurtso amaiera 18:30 Ikastolako umeen jaialdia

Elgoibar Ikastolako Haur Hezkuntzako umeen kurtso amaierako jaialdia izango da. Ikastolako frontoian.

Dastaketa 19:30 Ardo kata

Elgoibarko danborradaren batzordeak antolatuta, ardo kata izango da. Kultur Etxeko sotoan.

30 zapatua

Azken zapatuko feria 9:00 Baserriko produktuen salmenta

Elgoibarko hainbat baserriarrek produktuak jarriko dituzte salgai, eguerdira arte. Nafarroa Plazan.
11:00 Ganadu erakusketa
Ganadudunek animaliak jarriko dituzte ikusgai, Plaza Txikian.

11:00 Ardo dastaketa

Elgoibarko Danborradak antolatuta, ardo dastaketa izango da Nafarroa Plazan eta Leku Ederren, 15:00ak arte.

11:00 Urdaiazpiko dastaketa

Merkatu Plazako Barren-Azoka elkarteak antolatuta, Nafarroa Plazan, eguerdiko 13:00ak arte.

Kirola

10:00 Igeriketa eguna

Umeek ur-jolasetan hartuko dute parte, eta nagusiek igeriketa probak egingo dituzte. Olaizaga kiroldegian.

Kirola

10:30 Tenis jaialdia

Umeentzako hainbat jolas izango dira. Olaizaga kiroldegian.

Ate irekiak

11:00 IMHko ate irekien eguna

IMHK ateak irekiko ditu heziketa zikloi eta Ingeniaritza Eskolari buruzko informazioa emateko. Ikastetxea eta museoa bisitatzeko aukera izango da. IMHn.

GAZTELEKUKO EKINTZAK



BARIXAKUA 29

Graffiti diseinatu 17:00

ZAPATUA 30

Orrazkera ikastaroa 17:00

DOMEKA 31

Orrazkera ikastaroa 17:00

MARTITZENA 2

Bisita eta eskulanak 17:00

EGUAZTENA 3

Sukalde txokoa 17:00

EGUENA 4

Topagunea 17:00

LUDOTEKAKO EKINTZAK



BARIXAKUA 29

Kanpo jolasak 17:30

ZAPATUA 30

Bermeo eta

Gaztelugatxera irteera

ASTELEHENA 1

Bideo foruma 17:30

MARTITZENA 2

Hileko jolasa 16:30

EGUAZTENA 3

Marrazki txokoa 17:30

EGUAGENA 4

Non dago Ludo? 17:30

«Los abrazos rotos»

29, barixakua: 22:15
30, zapatua: 19:00/22:15
31, domeka: 19:00
1, astelehena: 21:30

Espainia, 2009. Zuz.: Pedro Almodovar. Akt.: Penelope Cruz, Lluís Homar, Blanca Portillo. 85 min.

Gizon batek iluntasunean idazten du, orain dela 14 urte itsu gelditu baitzen

Lanzaroten izandako auto istripu batean. Bi izen erabiltzen ditu gaur egun: Harry Caine, gidoiak eta literatur lanak sinatzeko, eta Mateo Blanco benetako izena, zinema zuzendari lanetarako.



2 martitzena

Kurtso amaiera

19:00 Herri Eskolako umeen jaialdia

Herri Eskolako ikasleen kurtso amaierako jaialdiaren lehenengo saioa izango da. Ekainaren 3an eta 4an ere egingo dituzte jaialdiak. Herriko Antzokian.

5 barixakua

Trinitate jaiak

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, bitik sei urtera arteko umeentzako eta euren gurasoentzako saioa.

Madalako parkean.

Jarraian, Mautxita

Txarangaren, Erraldoi eta Buruhandien jaialdia

23:00 Expresion Sonoraren kontzertua, Maalako Parkean.



Gure gomendioa

Azken zapatuko feria

Maiatzak 30, zapatua

Udalak eta Debemenek antolatuta, hileko azken zapatuko feria izango da bihar, 9:00etatik aurrera. Trikittilariet alaituko dute giroa, eta base-riko produktuak erostez gain, ardo eta urdaiazpiko dastaketa izango dira.



Tel.: 943 741 011



- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

Zerikasi

IKASTAROAK

Autodefentsa ikastaroa

Norentzat: Emakumeentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-06-06
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Ekainak 4

Kalkografiazko grabatua

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Ikasleen arabera
Hasiera data: 2009-07-06
Non: Deban
Izenemate bukaera: Ekainak 30

Web eta multimedia diseinatzailea

Norentzat: Langabetuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-09-14
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu, 943 120 156 (Iñigo)

Sukaldaritza hasiberrientzat

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Gazteleraz eta euskaraz
Hasiera data: 2010-05-05
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu

Word aurreratua

Norentzat: Word sakondu nahi dutenentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-06-08
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Ekainak 8

Sukaldaritza begetarianoa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Elebietan
Non: Elgoibarren
Hasiera data: 2009-06-04
Izena emateko azken eguna: Maiatzak 29

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 748 271

txatxaran



ainhoa dorado

Ainhoa Doradok 21 urte ditu, eta Musika-magisteritza ikasten ari da Bilbon. Umeak oso gustuko ditu, eta Elgoibarko ludotekan ere egiten du lan. Horrez gain, eskola-liburu bat egiten ere lagundu du, abestiak, ipuinak eta zotz egiteko kantak batzen dituena. Musikaz arduratu da elgoibartarra.

“Betidanik gustatu izan zait musika sentitzea”

Eskola liburu bat egiten lagundu duzu. Zelan eduki duzu proiektuan parte hartzeko aukera?

Duela bi urte hasi ginen proiektuarekin, eta azkenean maketatzea-eta iaz amaitu genuen. Iñaki Gamindez irakaslea oso interesatuta dago bizkaieran, eta euskalkiari buruz ikerketak egiten hasi zen. Azkenean eskola liburu bat egitea pentsatu zuten, eta horretarako ikasleek laguntza behar zuten.

Zer biltzen du liburuetan?

Ipuinak, abestiak eta zotz egiteko abestiak batzen ditu. Kanta eta ipuin zaharrak dira guztiak. Elkarizketak egin dizkiegu nagusiei, eta gero moldatu egin ditugu abestiak eta ipuinak. Nik musika ikasi dut. Beraz, abestiez arduratu naiz. Haur hezkuntzakoek, adibidez, ipuinak landu dituzte.

Zer izan da zuretzat liburuan parte hartzea?

Hasieran galduta ibili ginen, kantak bakarrik

ematen zizkiguten, edo hitzak bakarrik, eta zaila izan zen. Abestiak zaharrak izanda, garai hauetara moldatu behar genituen, eta gauza asko ez ziren ulertzen; guretzat ere zailak ziren ulertzeko. Gainera, taldean gipuzkoarrak geunden, eta zaila zen guretzat bizkaiera ulertzea.

Irakasle izateko ikasten diharduzu; eta musika irakaslea izateko, gainera. Zergatik?

Betidanik gustatu zaizkit umeak, eta 18 urte nituela, ez nekien zer egin. Lagunekin berba eginda, espezialitate bat egitea nahi nuela pentsatu nuen, lana egiteko aukera gehiago edukitzeko. Musika betidanik gustatu izan zait, musika sentitzea, alegia. Eskolan, baina, ez dute alor hori lantzen, eta hori aldatu nahi nuen. Ingeles-irakaskuntza ikasi nahi dut.

Momentuz, beraz, lanean hasteko asmorik ez daukazu.

Ordezkapenak egiten, ahal bada, hasi nahi

dit, baina ikasketekin jarraitzeko asmoa daukat. Bestalde, ludotekan egoten naiz astean hirutan: astelehen, eguazten eta barixakuetan.

Eta zelakoak dira Elgoibarko umeak?

Ni umea nintzenetik, garaiak aldatu egin dira. Sasoi batean bihurriak pare bat izaten ziren, baina, orain, gehiago daude. Zailagoa da, eta, gainera, erakusteko era ere asko aldatu da: zorrotzagoa da orain. **Ludotekan lan egiteak, etorkizunean klaseak emateko lagunduko dizu, ezta?**

Esperientzia hartzeko balio dit. Harremana ez da bera, baina, hala ere, umeak ezagutzen dituzu. Niretzat, lagungarria da. Hilabete egon nintzen Ikastolan praktikak egiten, eta ludotekan ere bai. Tarte horretan, umeekin beste konfiantza bat hartu nuen, eta kasu gehiago egiten zidaten.

ZAPATUA
MAIATZAK 30
GURE BEZEROEI
URDAIAZPIKO
IBERIKOAREN
DASTAKETA
ESKEINTZEN DIZUEGU



Merkatu Plazako Elkartea



EUSKO JAURLARITZA

Industria, Merkataritza
eta Turismo Saila



Gure denda gure pona !!



UROLA LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA
Altamira auzoa z/g 20720 AZKOITIA
Tel.: 943 852 174



ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA
Erdi mailako zikloa

EMAN EGURRA
zure etorkizunari!



AURRE MATRIKULAZIO EPEA:
Ekainaren 1etik - 12 ra
MATRIKULAZIO EPEA:
Ekainaren 29 tik - Uztailaren 3 ra

Trinitateak 09

Ondo pasa jaiak!

**Zorionak
elgoibartar
guztioi
Udalaren
izenean**

